- Udaletan eta Oarsoaldea Garapen Agentzian arloetako arduradunek kontratatutako pertsonak koordinatu eta ebaluatzea: laguntzeko teknikariak etengabe koordinatuko dira egutegi baten arabera arloko arduradunekin, langile bakoitzaren kontratazioa jarraitu eta ebaluatzeko. Ebaluatzeko euskarri sistematizatu eta objektiboa izate aldera, gaitasun-profilaren eta jarrera-profilaren fitxak erabiliko dira. Baliozko 2 tresna dira, eta irakaskuntzaren nahiz ikaskuntzaren prozesuan laguntzen dute, langilearen errendimendua eta lanbide-autonomia hobetzeaz gain.

Beraz, koordinatu eta balorazioak alderatzeari esker, teknikariak errendimenduaren eta jokabidearen ebaluazioa erregistratu eta pertsonari helaraziko diote; horrez gain, lanbide-zereginen pertsona bakoitzaren sendotasunak eta ahuleziak identifikatuko dituzte, hobekuntza-estrategiak abian jarri baino lehen.

Hasieran, kontratatutako pertsona bakoitzari arloko arduradunarekin hilero jarraitzea planteatzen da. Disfuntzionaltasunak antzematen badira, mahaiaren gainean jarriko litzateke jarraipenak maizago egitea.

- Banako jarduketak: ekintza hauek banako testuinguruan garatuko dira, eta taldeko ekintzekin osatuko dira kontratazioaren denboraldian. Orientabide-ekintzak direla bide, banakako jarraipen-eremua antolatuko da. Modu horretan, gorabehera aurre egingo zaie, eta ikaskuntza-prozesua ebaluatuko da, behar soziopertsonal eta profesionalekin batera produkzioaren ingurunean. Laguntza-teknikariak kontratatutako pertsona bakoitzarekin banako jarraipenak egituratuko dituzte. Banako jarduketa bakoitzak gutxi gorabehera ordubete iraungo du, eta, hasieran, aurreko puntuan planteatutakoari jarraikiz, hilean behar egingo da jarraipena.

Kontratazioaren denboraldian banako laguntza jarrera-profil eta gaitasun-profilari buruzko fitxak alderatu eta balorazioa itzultzean funtsatuko da, produkzioaren ingurunean ikasi, ebaluatu eta hobetzeko metodo eraginkorra baita.

jueves 14 de octubre de 2021



Ondoren, erabiliko diren gaitasun-profilaren eta jarrera-profilaren fitxak bistara daitezke:

GAITASUN-PROFILAREN fitxa:

	INPRIMAKIA: IM-C02-E/9											Berrazt.: 3		
	Gaitasun Profilaren Fitxa											Data: 2017/12/29		
												Or.: 1etik 1 a		
GAITASUN-PROFILA - PERFIL COMPETENCIAL														
Ikastaroaren/Programaren izena - Nombre del Curso/ Programa:														
Partaidearen izena - Nombre del o de la Participante:														
ZEREGINA - TAREA	Lortutako ezagutzak - Conocimientos adquiridos		Prozesua - Proceso		Aplikazioa - Aplicación		Autonomia - Autonomía		Bukatua		Acabado		Erritmoa Ritmo	
	Bai - Si	Ez - No	Bai - Si	Ez - No	Ind.	Tald. Grup.	Bai - Si	Ez - No	Txarra - Malo	Erdipurdikoa - Regular	Ona - Bueno	Motela - Lento	Hobetzen - Mejorando	Ona - Bueno
JARRAIPENAREN ZK. - Nº SEGUIMIENTO														

jueves 14 de octubre de 2021



JARRERA-PROFILAREN fitxa:

JARRERAK - ACTITUDES		KONTZEPTUAREN DESKRIBAPENA DESCRIPCION DEL CONCEPTO	EGOKIA ADECUADO	HOBETZEKO BEHARRA NECESITA	DESEGOKIA INADECUADO
ORDENA-ERANTZUKIZUNA RESPONSABILIDAD	ORDEN	Materiaia nahiz tresnak zaindu eta aprobetxatzea eta toki egokian garbiak eta ordenatuak mantentzea, cuidar y aprovechar el material y las herramientas, y mantenerlas limpias y ordenadas, en el sitio adecuado			
ANTOLAKETA ORGANIZACIÓN		Zeregin bakoitza aplikatzean materiaia eta tresnak aurrez ikustea eta hasi baino lehen behar bezala prestatzea. Prever el material y la herramienta a utilizar en la aplicación de cada tarea y prepararlo adecuadamente antes de comenzar.			
KONTZENTRAZIOA CONCENTRACION		Zeregina aplikatzeko orduan azalpenak edo argibideak arretaz entzutea. Estar pendiente y atento a las explicaciones o indicaciones que se le hacen en la aplicación de las tareas			
EKIMENA INICIATIVA		Berez, hurrengo zeregina ezagutzen duelako edo irakasleari galdetzen diolako lan bat amaitzen duenean bestea aplikatzeari ekiten dio. Por propia voluntad, bien porque conoce la siguiente tarea a aplicar o bien porque pregunta al monitor, al finalizar una tarea comienza la aplicación de otra			
AKATSAK ONARTZEA ASUMIR ERRORES		Ohartaraztea itxaron gabe edozein akats irakasleari jakinaraztea eta zuzenketak onartzea. Comunicar al monitor cualquier error que comete sin esperar a que éste se dé cuenta y aceptar sus correcciones			
IRUDI PERTSONALA IMAGEN PERSONAL		Eguneroko higiene-ohiturak izatea eta itxura garbia mantentzea. Tener hábitos de higiene diarios y mantener una imagen adecuada			
MONOTONIAREKIKO ERRESISTENTZIA RESISTENCIA A LA MONOTONIA		Lan-erritmoa murriztu gabe zereginek errepikatutako egiteko gaitasuna. Capacidad de realizar tareas repetitivas sin disminuir el ritmo de trabajo			
AUTOKONTROLA AUTOCONTROL		Kontrako edo ustekabeko pertsona edota egoeren aurrean lasaitasuna mantentzea. Mantener la calma ante personas y/o situaciones adversas o no esperadas			
ESKURAGARRITASUNA DISPONIBILIDAD		Irteteko ordua izanik, lan-kargen, ustekabeko egoeren edo amaigabeko lanen aurrean lanpostua ez utzea. No abandonar, siendo la hora de salida, el puesto de trabajo ante cargas de trabajo, situaciones imprevistas o tareas no finalizadas			
AGINDUAK ONARTZEA ACATAR ORDENES		Zeregina agindu bezala aplikatzea, aginduak norberari sortutako iritzia alde batera utzita, desadostasunik agertu gabe. Aplicar la tarea tal y como se le manda, independientemente de la opinión que le merezca la orden, sin expresar disconformidad			
KONSTANTZIA CONSTANCIA		Lanaldian eta aste guztian zehar zeregina irmoki eta modu saiatuan aplikatzea. Mostrarse firme y perseverante al aplicar las tareas a lo largo de toda la jornada laboral, y a lo largo de toda la semana			
IKASTEKO GOGOIA GANAS DE APRENDER		Zereginen, tresnen, materialen... aurrean galderak eginez interesa izatea, betiere ezezagunak badira. Interesarse, realizando preguntas, ante tareas, herramientas, materiales,...., que le sean desconocidos			
PUNTUALTASUNA PUNTUALIDAD		Aipatutako orduan lanpostuan egotea. Encontrarse en el puesto de trabajo a la hora señalada			
LANA TALDEAN TRABAJO EN EQUIPO		Beste lankideekin lan egitea eta laguntasun-harremana mantentzea; bakoitzak modu koordinatuan dagokion lanaren zatia aplikatzea. Trabajar con otros compañeros / as, manteniendo una relación cordial y aplicando coordinadamente la parte de trabajo que le corresponde			
EGOKITZAPENA ADAPTABILIDAD		Haserretu gabe ustekabeko aldaketetara moldatzea. Adaptarse a cambios inesperados sin mostrar malestar			
KOMUNIKAZIOA COMUNICACIÓN		Bakoitzaren iritzia eraginortasunez azaltzen jakitea eta gainerakoen iritzia ez ezeztatzea edo gutxiestea. Saber expresar la propia opinión de una manera eficaz sin negar o menospreciar la opinión de los demás			
ARAZOEN EBAZPENEA RESOLUCION DE PROBLEMAS		Gatazkak edo arazoak gainditzeko beharrezko ekintzak egitea. Llevar a cabo las acciones necesarias para superar conflictos o			

IM-C02-E/14

Modu honetan, guztira pertsona langabetuen 20 kontratazio egin nahi dira. Eskualdeko udalek eta Oarsoaldea Eskualdearen Garapen Agentziak berak egingo dituzte. Printzipioz, eremu publikoko kontratazioak direnez, diruz lagundutako kontratuaren denboraldiaren ondoren ez dago enplegua mantentzeko itxaropenik; hala eta guztiz ere, kontratazioak amaitzen direnean,

jueves 14 de octubre de 2021



eskualdearen garapen agentziaren enplegu zerbitzuak pertsona horiekin lan egingo du, lan-merkatu arruntera iristeko egin behar duten bidean.

Xede horrez, hautespen-prozesuan baremo-sistema zehaztuko da, “Onuradun guztien kopurua eta ezaugarriak” atalean deskribatzen diren lehentasunezko taldeen alde diskriminazio positiboa egiteko.

Azkenik, egindako kontratu bakoitzeko gehienez 12.500 euro erabiliko dira, eta lanaldi osoan gutxienezko iraupena 3 hilabetekoa izango da.

3.3.1.1.2. Egikaritzeko egutegia/kronograma hiruhilekoen arabera:

Jarduketak	2021/03	2021/04	2022/01	2022/02	2022/03	2022/04	2023/01	2023/02
1. jarduketa								
2. jarduketa								

3.3.1.1.3. Eraitzen adierazleak:

Jarduketa honetarako planteatzen ditugun eraitzen adierazleak ondorengo hauek dira:

- Kontratazio publikoak egitea: 20
- Kontratazio publikoak amaitzea: 20
- Kontratazio publikoa amaitu ondoren, 6 hilabetera merkatu arruntean kontratatutako pertsonen kopurua ondorengo hau izatea: 10

3.3.1.1.4. Onuradun guztien kopurua eta ezaugarriak:

20 langabetu onuradun izango dira. Kontratututako pertsonen ezaugarriak eta hautespen-irizpideei dagokienez, kontratatutako pertsonak kontratazioaren unean langabezian egongo dira, eta Lanbide-EEZan enplegu-eskatzailerik gisa izena emanda edukiko dute. Hala ere, lehentasuna dute ondorengo talde hauek:

- Oarsoaldeko eskualdean errolatutako pertsonak.
- DSBEaren hartzaileak.
- Emakumeak.
- 55 urtetik gorakoak.
- Bazterketa-arriskuan dauden pertsonak:
- - 18 urtetik gorako eta 30 urtetik beherako gazteak, adingabeen babes-erakundeetatik datozenak.
 - Droga-mendekotasunaren arazoak edo bestelako mendekotasunak dituzten pertsonak, errehabilitazio- ala gizarteratze-prozesuan badaude.
 - Espetxeetan dauden pertsonak, beren espetxe-egoerak enplegua lortzen uzten badie, eta lan-harremana 782/2001 Errege Dekretuak, uztailaren 6koak, 1. artikuluan araututako lan-harremian bereziaren aplikazio-eremuan ez badago ala baldintzapeko askatasuna badute edo preso ohiak badira.



- 5/2000 Lege Organikoak, urtarrilaren 12koak, adingabeen erantzukizun penala arautzen duenak, xedatutakoaren aplikazio-eremuan dauden pertsona adingabeak, baldin eta haien egoerak enplegua lortzen uzten badie, eta lan-harremana lege horren erregelamenduak, uztailaren 30eko 1774/2004 Errege Dekretuaren bidez onetsitakoak, 53.4 artikuluan aipatzen duen lan-harreman bereziaren aplikazio-eremuan sartuta ez badago; halaber, zaindutako askatasunaren egoeran daudenak eta espetxeratu ohiak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko agintari eskudunek baimentzen dituzten aukerako ostatu-zentroetatik datozen pertsonak.
- Desgaitasuna duten pertsonak.
- Familia-ardurak dituzten emakumeak. Familia-ardurak dituzten emakumetzat joko dira ardurapean ezkontidea eta/edo 26 urtetik beherako seme-alabak dituztenak, baina 26 urtetik gorakoak dituztenak ere, desgaituak badira; halaber, 18 urtetik beherakoak harrera-egoeran izan ditzakete. Xede horrez, familia-unitateko kideen batez besteko banako errentak ez du lanbide arteko gutxieneko soldataren % 75 gaindituko. Inguruabar horiek behar bezala ziurtatuko dira dokumentuen bidez.
- Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak.

3.3.1.1.5. Kontratazioaren hilabete guztiak/onuradunak:

Kontratazioek 3 eta 6 hilabete bitartean iraungo dituzte, eta lanaldia % 100ekoa izango da. 20 onuradun izango dira.

3.3.1.1.6. Diruz lagundutako kontratua amaitu eta 6 hilabetera lan-merkatu arruntean txertatutako pertsonen kopurua:10

Kontratazioak amaitzen direnean, aurrez ikusten da 10 pertsonak, hau da, guztiaren % 50ek, 6 hilabeteren buruan lan-merkatu arruntean kontratua lortzea. Horretarako, oinarritzkoa izango da kontratuan zehar eta amaitutakoan egindako jarraipena.

3.3.1.1.7. Diruz lagundutako kontratua amaitu eta 12 hilabetera jardueraren lorpen % lan-merkatuan txertatzeko orduan:15

Aurrez ikusia dago diruz lagundutako kontratua amaitu eta 12 hilabeteren buruan 15 pertsona lan-merkatu arruntean kontratatuta egotea, beraz, guztiaren % 75 litzateke.

3.3.1.1.8. Urteko eta guztizko aurrekontua.

Programaren urtekako aurrekontua ondorengo hau litzateke:

	2021	2022	2023	GUZTIRA
1. jarduketa		148.500 €	106.500 €	272.000 €
2. jarduketa		43.000 €	24.500 €	67.500 €
Kudeaketa-gastuak		8.500 €	8.500 €	
GUZTIRA:	0	200.000 €	139.500 €	339.500 €

jueves 14 de octubre de 2021



Bestalde, honako hau litzateke programaren aurrekontu zehatza gastu-motaren arabera:

1. JARDUERA: kontratazio publikorako programa	DIRULAGUNTZAREN SARRERAK LANERATZEKO POLOAREN HITZARMENA (A)	OARSOALDEAREN GASTUAK (B)	KANPOKO ERAKUNDEEN GASTUAK (C)	Gastuak guztira (B+C)	EMAITZAK A - (B+C)
20 langabetu kontratatze gastuak (soldatak eta gizarte- segurantzak)	250.000 €	250.000 €	0	250.000 €	0
Laguntzeko teknikaria	67.500 €	67.500 €	0	67.500 €	0
Material didaktikoa, suntsigarria eta laneko arrisku- etarako babes- elementuak	5.000 €	5.000 €	0	5.000 €	0
Antolaketa eta kudeaketa	17.000 €	17.000 €	0	17.000 €	0
GUZTIRA:	339.500 €	339.500 €	0	339.500 €	0

3.3.1.1.9. Erreferentziako arautegi-esparrua.

Jarduketa honetarako erreferentziako arautegi-esparrua da "2021eko ekitaldirako enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen" deialdia. Halaber, Lanbideren deialdia, "2021eko ekitaldirako 2014-2020 Gazteen Enpleguari buruzko Programa Operatiboaren esparruan tokiko erakundeek gazteak kontratatze laguntzei" buruzkoa.

3.3.1.2. Kontratazio pribaturako programa:

3.3.1.2.1. Jarduera osatzen duten ekintzak:

Globalizazioak, osasun- eta ekonomia-krisiak eta gure enpresek lehian diharduten agertoki berriak gero eta beharrezkoago bihurtzen dute elkarri babestea, esperientziak partekatzea, gainerakoetatik ikastea eta enpresen artean sinergiak sortzea. Enpresa bakoitza bere kabuz joango balitz, hobekuntza- eta ikaskuntza-aukerak, sortu eta berritzearen ingurukoak... ihes egiten utziko lituzke; ezingo luke eskura duen lehiakortasun-tresna garrantzitsuenetako bat garatu. Pertsonak bizitzeko beste pertsona batzuk behar dituzten bezala, enpresentzat

jueves 14 de octubre de 2021



ezinbestekoak dira beste enpresa batzuk, eta behar hori gehiago areagotzen da bizitzen ari garen garai gatazkatsu honetan.

Enpresaren prospekzio- eta laguntza-prozesuak oinarritzekoak dira enplegu plan ona garatzeko. Enpresek oso informazio garrantzitsua ematen digute bizitzen ari garen errealitateari buruz, zer profil eskatzen dituzten, garatzen ari diren sektoreak, merkatuan eskatzen ari den prestakuntza, joera teknologikoak, zailtasun ekonomikoak edo bestelakoak... Informazio hori guztia nahitaezkoa da langabetuekin garatzen ditugun gizarteratze eta lan-merkatuan sartzeko prozesuetarako, baita lehiakortasuna hobetze aldera enpresentzat abian jartzen ditugun estrategiak inplementatzeko ere.

Ildo horri eutsiz, denbora daramatzagu eskualdeko enpresen zailtasun ekonomiko eta finantzarioak antzematen. Nolanahi ere, horren emaitzak dira kontratazio-politika soilak eta kontserbatzaileak. Merkatuko ziurgabetasunarengatik asko pentsatzen dute kontratazio bat egitea planteatu baino lehen. Osasun-krisia dela bide, enpresak pixkana beren langile kopuruak gutxienera doituz doaz, eta produkzio-punta dutenean, askotan nahiago izaten dute beren produkzio-gaitasuna gehienez esplotatzea, langileak kontratatzea baztertuta.

Hala, beldurrak, ziurgabetasunak eta bankuen eskutik finantzaketa lortzeko arazoen lan-merkatu arruntean kontratazioak gelditzen dituzte.

Kalitatezko enplegu iraunkorra sustatzea da eskualdea osatzen duten tokiko erakundeek etorkizunari begira egin behar duten apusturik garrantzitsuenetarikoa, eta, batez ere, lehentasuna eman behar diete finko bihurtzeko aukera duten kontratazio guztiei. Kontratazio pribaturako programa honen bidez ez da sektore zehatza indartzea planteatzen. Lan-merkatu arruntean kontratazioak sustatu nahi dira, hasira batean mugagabe bihurtzeko asmoa badute, hau da, enplegua sortzen ari diren edo aurrez ikusia duten eskualdeko enpresekin elkarlanean aritu nahi da.

Hurrengo urteetarako eskualdeak egin nahi duten garapen ekonomikoaren apustuari erreparatuz gero, asmoa da sare ekonomiko bat eraikitzea eraldaketa ekonomikoaren erronka eta aukerei aurre egiteko eta pixkana lan-merkatu helarazteko. Zehazki, helburua da kalitatezko lan-kontratuak formalizatzen joatea.

Apustu hori babeste aldera, ezinbestekoa iruditzen zaigu aldi baterako kontratazioak bultzatzen dituzten programak garatzea, gero mugagabe bihurtzeko eta, bide batez, epe luzera enpresek proiektu berriak garatzeko.

Bestalde, jarduketa honen barruan eskualdeko enpresei laguntzeko berariazko jarduketa planteatzen da. Helburua da enplegua sortzeko ahalmena duten proiektu estrategikoak definitzen eta abian jartzen laguntzea.

Jarduketa-ildo honen bitartez hurrengo helburu hauek lortu nahi dira:

- Lan-merkatu arruntean lan-esperientzien bitartez langabetuak lan-merkatu iristeko aukerak hobetzea. Zehazki, guztira 96 langabeturi laguntzea planteatzen da.
- Enpresei laguntzea, enplegua sortzeko ahalmena duten enpresa-garapeneko aukerak antzeman ditzaten. Zehatz-mehatz esanda, guztira 200 enpresa aztertzea eta laguntzea planteatzen da.
- Oarsoaldeko eskualdeko enpresen lehiakortasuna hobetzea.

jueves 14 de octubre de 2021



Jarduketa-ildo hau ondorengo modu honetan ardaztuko da:

a) Kontratazioarako laguntzen oinarriak argitaratzea, besteak beste, ondorengo eskakizun hauek aurrez ikusteko:

- Oarsoaldeko eskualdeko eta udalerrri gertuetako enpresek kontratatzea.
- Langabetuak, Lanbiden enplegu-eskatzaille modura inskribatutakoak eta lehentasunez Oarsoaldeko eskualdeko udalerrietan erroldatutakoak, kontratatzea.

b) Enplegu-aukerak aztertzea eta produkzio-sarea sentsibilizatzea.

c) Enpresetatik jasotako eskeak hartu eta baloratzea.

d) Enplegu-eskaintzak kudeatzea.

e) Enpresa eskatzaileekin hitzarmenak sinatzea.

f) Kontratazio-prozesua jarraitu eta baloratzea: jarduketa hauek kontratatutako pertsonak lan-merkatuan txertatzera bideratuta daude. Horregatik, funtsezkoa da banako laguntza teknikoa.

g) Enprekin justifikazio ekonomikoa.

Horrekin guztiarekin, enpresa arruntek langabetuen artean guztira 96 kontratazio pribatu egitea aurrez ikusten da. Kontratazioek lanaldi osoan gutxienez 6 hilabete iraungo dute.

Jarduera hau hurrengo jarduketa hauek osatzen dute:

- 1. jarduketa: kontratazioarako laguntzen oinarriak argitaratzea.
- 2. jarduketa: enplegua sortzeko aukerak antzematen eta hautespen-prozesuak kudeatzen enpresei laguntzea.
- 3. jarduketa: kontratazioak hastea.
- 4. jarduketa: kontratatutako pertsonei laguntzea.

Horretarako, kontratu bakoitzeko jarduketa honetan 6.000 euroko laguntza ekonomikoa planteatzen da.

3.3.1.2.2. Egikaritzeko egutegia/kronograma hiruhilekoen arabera:

Ondorengo egutegi eta kronograma hau planteatzen dira:

	2021/03	2021/04	2022/01	2022/02	2022/03	2022/04	2023/01	2023/02
1. jarduketa								
2. jarduketa								
3. jarduketa								
4. jarduketa								

jueves 14 de octubre de 2021



3.3.1.2.3. Emaitzen adierazleak:

Jarduketa honetarako planteatzen ditugun emaitzen adierazleak ondorengo hauek dira:

- Kontratazio pribatuak egitea: 96
- Kontratazio pribatuak amaitzea: 90
- Diruz lagundutako kontratazioa amaitu eta 6 hilabetera kontratatuta jarraitzen duten pertsonen kopurua: 76
- Diruz lagundutako kontratazioa amaitu eta 12 hilabetera kontratatuta jarraitzen duten pertsonen kopurua: 82

3.3.1.2.4. Pertsona eta enpresa onuradun guztien kopurua eta ezaugarriak:96

Guztira 96 pertsona kontratatzea nahi da; pertsona horien ezaugarriei dagokienez, langabetuak izango dira, eta kontratazioaren unean Lanbide-EEZn enplegu-eskatzaile modura inskribatuta egongo dira. Horrez gain, kontratatutako pertsonak lehentasunez Oarsoaldeko eskualdeko udalerriren batean erroldatuta azalduko dira.

Memoria honetan planteatutako beste jarduketa-ildo baten osagarri gisa, gure iritziz, aukera ona da kontrataziorako laguntzak prestakuntza-ekintza tradizionalagoekin konbinatzea. Modu horretan, Enplegu Plan honen babesean prestakuntza-ekintza horietan parte hartzen duten pertsonak kontrataziorako laguntzen onuradun izan ahalko dira, baldin eta enpresak kontrataziorako laguntzen oinarrietan xedatutako gutxieneko eskakizunak betetzen baditu.

Bestalde, kontrataziorako laguntzen enpresa onuradunek lehentasunez lan-zentroa Oarsoaldeko eskualdean izango dute, eta gehienez 3 kontratazio lagunduko dira diruz.

3.3.1.2.5. Kontratazioaren hilabete guztiak/onuradunak: 96

Guztira 96 kontratazioak jasoko dute dirulaguntza, beraz, jarduketa honen pertsona onuradunak 96 izango dira. Bestalde, enpresa batek gehienez 3 kontratazio izango ditu diruz lagunduta.

3.3.1.2.6. Diruz lagundutako kontratua amaitu eta 6 hilabetera laneratutako pertsonen kopuru guztia:

Diruz lagundutako kontratua amaitu eta 6 hilabetera lan-merkatuan txertatutako pertsonen kopurua guztia: 76.

3.3.1.2.7. Diruz lagundutako kontratua amaitu eta 12 hilabetera jardueraren lorpen % lan-merkatuan txertatzeko orduan:

Diruz lagundutako kontratua amaitu eta 12 hilabetera lan-merkatuan txertatutako pertsonen kopurua guztia: 82.

3.3.1.2.8. Urteko eta gutzizko aurrekontua:

Programaren urtekako aurrekontua ondorengo hau litzateke:

	2021	2022	2023	GUZTIRA
1. jarduketa	10.000 €	15.250 €	8.500 €	33.750 €
2. jarduketa				
3. jarduketa	213.191 €	362.809 €		576.000 €
4. jarduketa	8.500 €	15.250 €	10.000 €	33.750 €

jueves 14 de octubre de 2021



Kudeaketa-gastuak	4.250 €	8.500 €	4.250 €	17.000 €
GUZTIRA:	235.941 €	401.809 €	22.750 €	660.500 €

Bestalde, honako hau litzateke programaren aurrekontu zehatza gastu-motaren arabera:

2. JARDUERA: kontratazio pribaturako programa	DIRULAGUNTZAREN SARRERAK LANERATZEKO POLOAREN HITZARMENA (A)	OARSOALDEAREN GASTUAK (B)	KANPOKO ERAKUNDEEN GASTUAK (C)	Gastuak guztira (B+C)	EMAITZAK A - (B+C)
Kontratazioaren gastuak	576.000 €	576.000 €	0	576.000 €	0
Enpresa edo erakundeekin lan- bitartekaritzarako teknikaria	33.750 €	33.750 €	0	33.750 €	0
Pertsonei laguntzeko teknikaria	33.750 €	33.750 €	0	33.750 €	0
Antolaketa eta kudeaketa	17.000 €	17.000 €	0	17.000 €	0
GUZTIRA:	660.500 €	660.500 €	0	660.500 €	0

3.3.1.2.9 Erreferentziazko arautegi-esparrua:

Jarduketa honetarako erreferentziazko arautegi-esparrua da “2021eko ekitaldirako enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen” deialdia.

3.3.2. Gizartean eta lan-merkatuan sartzeko programa osoak

Eskualdeko garapen sozioekonomikoa sustatzeko, bere herritarren gizarteratzea eta laneratzea ziurtatu behar dira. Horretarako, enplegua da lehentasun nagusia, funtsezko palanka baita pertsonen segurtasun ekonomikoa eta gizarteratzea bermatzeko.

Oarsoaldean lan-merkatua asko hondatu zen krisi ekonomikoaren urteetan. Orain hobetu arren, berriz okerrera egin du pandemiak sortutako krisiarekin. Argi gelditu da langabezia



kronifikatuak irauten duela eta horren barruan behe-prestakuntza duten pertsonen kopurua garrantzitsua dela. Zenbait taldek azpiordezkaritza dute lan-merkatuan (adinduen kohorteen biztanleria aktiboa, etorkinak, desgaitasunen bat duten pertsonak, mendekotasun- eta portaera-arazoekin lotutako arriskuak dituzten pertsonak...). Horien langabezia-tasak altuagoak dira.

Aldi berean, globalizazioak, aurrerapen teknologikoen, ziklo ekonomikoen eta pandemiak aldaketa sakonak ekarri dituzte, eta, beste ondore negatibo batzuen artean, enplegu-baldintzak txartu dira, beraz, ezinbestez aldaketetara egokitu behar da.

Prestakuntza, jarrera ekintzaile, zereginak biziagotzeari dagokionez, gero eta lehiakorragoa den ingurune batean baztertuta gelditzen diren biztanleen geruzak loditzen ari dira. Prozesuen automatizazioa eta digitalizazioa lanpostuak mantendu eta egokitzeko mehatxua izan arren, halaber, aukera bat dira eduki handiagoa duten funtzioak sortzeko eta, nolahi ere, aldagai saihestezinak dirudite.

Errealitate horren aurrean, enplegurako politika aktiboak eta gizarteratu nahiz lan-merkatuan sartzeko mekanismoak indartu behar dira, erakunde-jarduketa beste jarduketa batzuekin osatzeaz gain, enpresa txikiei eta autonomoei lehentasuna eman diezaieten. Hala, neurriak aplikatuko dira enpresa-jarduera berriak abian jartzen laguntzeko, baita lehendik dauden jarduera ekonomiko eta enpleguei eusteko ere. Azken helburua da ekonomia sortuko duten enplegu-politiketan eraldatzen saiatzea.

3.3.2.1. 1. jarduera: Autoenplegua eta ekintzailetza sustatzea orokorrean eta eskualderako estrategikotzat jotzen diren sektoreetan.

Enpresa berriak sortzea elementu bat da Oarsoaldeko tokia garatzeko eta ekonomia sustatzeko estrategian. Halaber, funtsezko elementua da suspertze-estrategiaren barruan. Era berean, etorkizunari begira, nahitaezkoa da enplegua sortzen duten sektoreak garatzea, besteak beste, sormenaren jarduerak, ekonomia urdina, zirkularra, zilarrezkoa eta nekazaritza-elikagaiena. Horiek guztiak aukera-eremuak dira enplegua eta jarduera ekonomikoak sortzeko.

Horregatik, jarduera honen helburua da norberaren konturako enplegua bultzatzea, eta, xede horrez, eskualdean enpresa berriak abian jartzea, batez ere, lurralderako estrategikotzat jotzen diren eremuetan. Hori honakoen bitartez egingo da:

* **Aholkularitza eta laguntza tekniko egokia:** ekintzaileei ekintzailetza-proiektua garatu eta abian jartzeko prozesuaren fase guztietan zehar aholkularitza osoa ematea oinarritzkoa da jarduera ekonomiko berriak abiarazteko.

Arautegi-esparrua: arlo honetarako Lanbideren laguntzak daude, hala nola ideia garatu eta jarduera abian jartzeko laguntzak.

* **Enpresa-jarduera hasi eta abian jartzeko laguntza behar duten ekintzaileentzako laguntza ekonomikoak.**

Arautegi-esparrua: arlo honetarako Lanbideren laguntzak daude, hala nola "proiektua ezartzeko laguntzak", "enpresa-jarduera finkatzeko laguntzak".

jueves 14 de octubre de 2021



* **Oarsoaldeko ekosistema ekintzailea astindu eta ekimenak azaleratzeko proiektuak garatzea.** Eskualdean aukera-eremu eta -sektoreetan ikasi, ekin, lankidetzan jardun eta berritzeko inguruneak bultzatzean datza, partaideek ezagutzak nahiz gaitasunak lortu eta/edo hobetzeko eta, baliabideak, ezagutza eta ideiak partekatuta, elkar erlazionatzeko.

Oarsoaldea eskualdeko eremu estrategikoetan ikaskuntza, ekintzailtza, lankidetzan, sormen eta berrikuntzaren ingurunea bultzatuko da, nagusiki sormenaren eta STEM diziplinen arloan, partaideek ezagutzak nahiz gaitasunak lortu eta/edo hobetzeko eta, baliabideak, ezagutza eta ideiak partekatuta, elkar erlazionatzeko. Arlo horretan bi proiektu garatzearen bitartez beste proiektu batzuetan (STEM ekiten, Habian Tek Soziala) dagoeneko ikasitako metodologiak erabili eta sektore estrategikoetan ekintzailtza-proiektuak bultzatu eta abian jartzeko lanekin jarraitzeko ibilbideak zehaztu nahiko genituzke.

3.3.2.1.1. Ekintza hauetarako berariazko adierazleak

Onuradunak kezka ekintzaileak dituzten langabetuak dira.

Autoenplegua eta ekintzailtza	Adierazlea	Helburua
Aholkularitza eta laguntza teknikoa	Pertsona-kopurua	100-120
Ekosistema ekintzailea astintzeko proiektuak-2	Pertsona-kopurua	20-30
Enpresa berriei laguntzea	Enpresen kopurua	75

3.3.2.1.2. Urteko eta guztizko aurrekontua.

Jarduera	2021	2022	2023	Guztira
Autoenplegua eta ekintzailtza sustatzea	211.059,00 €	260.118,00 €	92.559,00 €	563.736,00 €

BERPIZTU EKINTZAILTZA izenpean **lau ekintzailtza-programaberri** multzokatu eta garatuko dira, Agentziak aurreko urteetan garatutako ekintzailtza-programa eta zerbitzuetan oinarrituta, baina oraingoan eskualdean positiboki eragin eta oreka soziala sortzen duten ekintzailtza-proiektuak garatzera orientatu eta bideratuta.

Narriadura-egoera, oraindik ageri diren Covid-19 pandemiaren ondoreekin larriagotu da eta, ondorioz, gure helburuak izan behar du **“hobe berreraikitzea” eta, horretarako, ekintzailtza, berrikuntza, teknologian, sormenean eta oinarritzko ekonomian eta ez ikusian funtsatutako susperraldia bultzatzea.**

Ezagutza, teknologia, berrikuntza, arte eta sormenean oinarritutako sektoreak oso sektore erakargarriak dira. Ezinbestekoa da sektore horiei laguntzea, sortzen dituzten onurengatik, baina ekonomiaren zati bat baino ez dira. Beste zati bat, garrantzitsuagoa, nahiz eta hain **“salgarria” eta “erakargarria” ez izan, baina pandemia honek balioa eman diona, ia etena zegoen ekonomian funtzionatzen jarraitu baitu. **Ekonomiaren zati horri ere arreta jarri behar zaio. Itxuraz, ikusezina da, baina bere jarduerak herritarrentzat funtsezkoak dira. Askok****

jueves 14 de octubre de 2021



izaera soziala dute, gizarte-ongizatean laguntzen dute, eta enplegua ematen diete pertsona askori. Oinarrizko ekonomia eta ekonomia baztertua dira.

Horrengatik guztiarengatik, **BERPIZTUk** elkartzen dituen lau ekintzailtza-programa berrien ekintzak honako hauen ingurukoak izango dira:

1. Ezagutza, berrikuntza, teknologiari lotutako jarduerak: **BERPIZTU - ZTIM** (zientzia, teknologia, ingeniari-tza, matematika)
2. Jarduera artistikoak: **BERPIZTU- ATB** (artisansu talentu bultzatzeko)
3. Oinarrizko eta baztertutako ekonomiarekin zerikusia duten jarduerak: **BERPIZTU-FUNTSEZKO EKONOMIA**
4. Inbertsioak erraztuta, proiektu berriak abian jartzeko laguntza: **BERPIZTU -EKITERA**

Urteko aurrekontua jardueren arabera.

Jarduerak	2021	2022	2023	GUZTIRA
Stem ekiten proiektua	- €	17.559,00 €	17.559,00 €	35.118,00 €
Artisansu talentu bultzatzeko programa proiektua	17.559,00 €	17.559,00 €	- €	35.118,00 €
Ekintzailtza-aren aholkularitza	13.500,00 €	45.000,00 €		58.500,00 €
Ekitera enpresa berriak abian jartzeko laguntzak	180.000,00 €	180.000,00 €	75.000,00 €	435.000,00 €

Barneko kostuak jardueren arabera.

Jarduerak	2021	2022	2023	GUZTIRA
Stem ekiten proiektua	- €	3.500,00 €	3.500,00 €	7.000,00 €
Artisansu talentu bultzatzeko programa proiektua	3.500,00 €	3.500,00 €	- €	7.000,00 €
Ekintzailtza-aren aholkularitza	13.500,00 €	45.000,00 €	- €	58.500,00 €
Ekitera enpresa berriak abian jartzeko laguntzak	15.000,00 €	30.000,00 €	- €	45.000,00 €

Aurrekontua partiden arabera.

Aurrekontua partiden arabera	Autoenplegua eta ekintzailtza sustatzea
Oarsoaldeako langileak	117.500,00 €
Kanpoko kontratazioak	44.794,00 €
Bestelakoak (abian jarritako enpresentzako dirulaguntzak, kontratazioak, ekintzailtza-proiekturako gastuak)	401.442,00 €
GUZTIRA	563.736,00 €

3.3.2.1.3. Jardueren kronograma

Jardueren kronograma	2021	2022	2023
Autoenplegua eta ekintzailtza sustatzea			

Jardueren kronograma	2021	2022	2023
Stem ekiten proiektua			
Artisansu talentu bultzatzeko programa proiektua			
Ekintzailtza-aren aholkularitza			
Ekitera enpresa berriak abian jartzeko laguntzak			



3.3.2.2. 2. jarduera: enplegu autonomoa eta enpresa txikiak mantentzeko programak

Enpresen ingurunea aldatu da globalizazioaren, garapen teknologikoaren, ekonomiaren zikloen eta, azkenik, pandemiaren ondorioz. Horrenbestez, bere alde negatiboan, besteak beste, enpleguaren baldintzek okerrera egin dute, eta enpresek nahiz enpleguek bizirik irautea arriskuan jartzen ari dira, batez ere, gure hiri-ekonomiako pertsona autonomo, profesional eta enpresa txikietan, aldaketa horiekiko guztiekiko kalteberenak baitira.

Maila guztietako eskakizunengatik, autonomo eta enpresa txiki asko gero eta ingurune lehiakorragoan atzean gelditzen ari dira. Pandemiaren azken ondorioak (jarduera jaistea, ohiturak aldatzea eta digitalizazioa bizkortzea nahiz merkatutako eskakizun eta eske berriak) mehatxu bihurtu dira enpresa askok aurrera egin ahal izateko, eta, bide batez, lanpostu kopuru garrantzitsua mantentzeko. Autonomo eta enpresa txikien zati garrantzitsuak arazo ugari aurre egin behar dizkiete. Negozioaren mailako aldaketek (ohiturak, digitalizazioa, behar berriak...) eraldaketa sakonak dakartzate orain arte bilakaera urria izan duten sektoreetan. Gainera, askotan ez dute aurre egiteko laguntza eta gaitasunik. Beraz, enpresak itxiko dira, enpresak eta enplegua galtzarekin batera. Arazoak hurrengo hauek dira:

1. Aldaketei aurre egiteko informazio eta ezagutza gabezia.
2. Aldaketei aurre egiteko gaitasunik eta motibaziorik eza.
3. Bakardadea.
4. Kanpoko laguntza fasiladoreak eskuratzeko bitarteko ekonomikorik eza.

Horrengatik guztiarengatik, gabezia horiek arintzen laguntzeak autonomo eta enpresa txikien jarduera ekonomikoa eta enplegua mantentzen lagunduko du, hainbat gure hiri-ekonomiarako enpresa-sarearen zati baitira eta, gainera, gure udalerrien dinamismo eta jarduera ekonomikoa sustatzen baitute, gure oinarrizko ekonomia eusteaz gain.

Enpresek ez itzeko, enplegurik ez galtzeko eta jarduera ekonomikoek aurrera egiteko, funtsezkoa da arazoei erantzute aldera baliabide hauek erraztea:

- * Aholkularitza eta laguntza tekniko egokia, aldaketa- eta eraldaketa-prozesuan babesteko.
- * Motibazio-pilulak eta taldeko nahiz banako prestakuntza-ekintzak.

3.3.2.2.1. Ekintza hauetarako berariazko adierazleak:

Onuradunak nagusiki autonomoak, profesionalak eta enpresa txikiak dira, eta horiek dira, hain zuzen, gure hiriko enpresa-sarea osatzen duten gehienak.

Autonomoen enplegua eta enpresa txikien enplegua mantentzeko programak	Adierazlea	Helburua
Aholkularitza eta laguntza teknikoa	Enpresen kopurua	120-150
Motibazio-pilulak eta prestakuntza-ekintzak	Enpresen kopurua	25-30

jueves 14 de octubre de 2021



3.3.2.2.2. Urteko eta guztizko aurrekontua:

Jarduera	2021	2022	2023	Guztira
Autonomoen enplegua mantentzeko programak	22.000,00	107.000,00	57.000,00	186.000,00

Urteko aurrekontua jardueren arabera:

Costes totales proyectos				
Actividades	2021	2022	2023	TOTAL
programa formación digital en la economía urbana (orientación y tutoría individual)	22.000,00 €	74.000,00 €	24.000,00 €	120.000,00 €
programa formación para la innovación en la economía urbana (formación grupal+tutoría individual)	- €	33.000,00 €	33.000,00 €	66.000,00 €

Barneko kostuak jardueren arabera:

Costes internos por actividades				
Actividades	2021	2022	2023	TOTAL
programa formación digital en la economía urbana (orientación y tutoría individual)	22.000,00 €	44.000,00 €	24.000,00 €	90.000,00 €
programa formación para la innovación en la economía urbana (formación grupal+tutoría individual)	- €	3.000,00 €	3.000,00 €	6.000,00 €

Aurrekontua partiden arabera:

Aurrekontua partiden arabera	Autonomoen enplegua mantentzeko programak
Oarsoaldearen langileak	96.000,00 €
Kanpoko kontratazioak	90.000,00 €
Bestelakoak (enpresak abian jartzeko dirulaguntzak, kontratazioak, ekintzailatza-proiekturako gastuak)	
GUZTIRA	186.000,00 €

3.3.2.2.3. Jardueren kronograma:

Jardueren kronograma	2021	2022	2023
Hiriko ekonomian prestakuntza digitalerako programa			
Hiriko ekonomian berrikuntzarako prestakuntza-programa			

Jardueren kronograma	2021	2022	2023
Autonomoen enplegua mantentzeko programa			

jueves 14 de octubre de 2021



3.3.2.3. Prestakuntza- eta enplegu-proiektuak:

Prestakuntza- eta enplegu-programak oso tresna baliagarriak dira langabetuak gizarteratu eta lan-merkatuan sartzearen esparruan jarduteko. Batetik, partaideen prestakuntza eguneratzeko lan egiten da, eta, bestetik, ondoren kontratazioa planteatzen du, bai merkatu arruntean, bai kontratazio publikoen bitartez. Kasu honetan, prestakuntza eta eskakizun desberdinak dituzten zenbait talderentzat 3 programa-mota planteatuko ditugu.

Lehenengo bi kasuetan, **eraldaketa digital eta teknologikoaren eremuan langabetuak laneratzea eta enpresa arruntek haien enplegua sustatzea planteatuko dugu**. Xede horrez, eraldaketa digital eta teknologikoaren eremuan bi prestakuntza- eta enplegu-programa sustatuko dira, langabetuak laneratzeko, talentua enpresetara hurbiltzeko eta kalitatezko enplegu iraunkorrerako bidean aukerak sortzeko.

Hirugarren kasuan, ordea, prestakuntza- eta enplegu-programaren tipologia bere egunean "Auzolan" esaten zitzaiona da. Proiektuen tipologia hau lan-merkatutik urrunduta dauden pertsonentzat da. Horiek berariazko eta zeharkako prestakuntza-jarduketak behar dituzte, eta prozesu guztian zehar laguntza soziala ezinbestekoa zaie. Kasu honetan kontratazioa eremu publikoan planteatzen da, zehazki, Oarsoaldea Garapen Agentziak egingo luke.

Ondoren, 3 programa hauek aipatuko ditugu:

3.3.2.3.1. 1. programa: digitalizazioaren eragile mugiarazleen programa.

Enpresetarako digitalizazioaren eragile mugiarazlearen irudia sortzea. Bere gaitasun eta tresna-sorta egokiarekin, kontratazioa erraztuta, coach modura lagunduko die enpresei digitalizazio-prozesuan zehar. Proiektuak ondorengo zeregin hauek eskatzen ditu:

- Beharrezkoa den laguntza teknikoa kontratatzea.
- Beharrezko lanbide-profilerako prestakuntza eta tresnen mapa diseinatzea.
- Hedapena eta komunikazioa.
- Langabetu partaideak lortu eta hautatzea.
- Enpresa partaide interesdunak lortu eta hautatzea.
- Pertsonak eta enpresak elkartzeko.
- Langabetu partaideen prestakuntza garatzea.
- Enpresan jarduteko kontratuak formalizatzea.
- Kontratutako pertsonen jarraitu eta laguntzea.
- Enpresei jarraitu eta laguntzea.

3.3.2.3.2. 2. programa: talentu teknologikoa sustatzeko programa.

Gazteen talentua enpresetara hurbiltzea bigarrenen erronka teknologikoak ebazterren bitartez; hala, prestatuko zaie eta kontratazioa nahiz laneratzea sustatuko dira. Horrez gain, enpresa-proiektu teknologikoen inguruan aukera gehiago eta hobeak sortuko dira, batez ere industriaren sektorean edo horri lotutako zerbitzuen sektorean. Proiektuak ondorengo zeregin hauek eskatzen ditu:

- Beharrezkoa den laguntza teknikoa kontratatzea.
- Beharrezko prestakuntza diseinatzea.
- Hedapena eta komunikazioa.
- LH edo unibertsitateko gazteak lortu eta hautatzea.

jueves 14 de octubre de 2021



- Enpresetan erronka teknologikoak lortu eta hautatzea.
- Pertsonak eta erronkak elkartzea.
- Gazte partaideen prestakuntza garatzea.
- Erronka garatze aldera enpresan sartzeko kontratuak formalizatzea.
- Kontratutako pertsoneri jarraitu eta laguntzea.
- Enpresei jarraitu eta laguntzea.

Ekintza hauetarako berriazko adierazleak:

Onuradunak dira langabetuak, laneratzeko zailtasunak dituzten taldeetan badaude, batik bat, gazte eta emakume langabetuak.

Prestakuntza- eta enplegu-proiektuak	Adierazlea	Helburua
Digitalizazioaren eragile mugiarazleen programak	Pertsona-kopurua	10-15
Talentu teknologikoaren programa	Pertsona-kopurua	10-15

Urteko eta guztizko aurrekontua:

Jarduera	2021	2022	2023	Guztira
Digitalizazioaren eragile mugiarazleen programa	3.000,00	96.441,00	25.691,00	125.132,00
Talentu teknologikoaren programa	3.000,00	96.441,00	25.691,00	125.132,00
GUZTIRA Digitalizazioaren eragile mugiarazleen eta talentu teknologikoaren programak	6.000,00	192.882,00	51.382,00	250.264,00

Urteko aurrekontua jardueren arabera:

Jarduerak	2021	2022	2023	GUZTIRA
Talentu teknologikoaren proiektua	3.000,00 €	96.441,00 €	25.691,00 €	125.132,00 €
Digitalizazioaren eragile mugiarazleen proiektua	3.000,00 €	96.441,00 €	25.691,00 €	125.132,00 €

jueves 14 de octubre de 2021



Barneko kostuak jardueren arabera:

Barne kostuak jardueren arabera				
Jarduerak	2021	2022	2023	GUZTIRA
Talentu teknologikoaren proiektua	3.000,00 €	5.441,00 €	2.000,00 €	10.441,00 €
Digitalizazioaren eragile mugiarazleen proiektua	3.000,00 €	5.441,00 €	2.000,00 €	10.441,00 €

Aurrekontua partiden arabera:

Aurrekontua partiden arabera	Prestakuntza eta enplegu digitalerako proiektuak
Oarsoaldearen langileak	20.882,00 €
Kanpoko kontratazioak	30.000,00 €
Bestelakoak (enpresak abian jartzeko dirulaguntzak, kontratazioak, ekintzailletza-proiektuaren gastuak)	199.382,00 €
GUZTIRA	250.264,00 €

Jardueren kronograma:

Jardueren kronograma	2021	2022	2023
Talentu teknologikoaren proiektua			
Digitalizazioaren eragile mugiarazleen proiektua			

Jardueren kronogramas	2021	2022	2023
Prestakuntza eta enplegu digitalerako proiektuak			

3.3.2.3.3. 3. programa: prestakuntza eta kontratazio publikorako proiektuak (Auzolan mota)

3.3.2.3.3.1. Jardueraren deskribapena:

Ildo honen bidez 3 prestakuntza- eta enplegu-proiektu abian jartzea planteatzen dugu. Bakoitzean 8 pertsona arituko dira, horietatik 7 ikasleak-langileak izango dira eta bat ofiziala.

Jarduketa honen helburua da gizarteratze eta lan-merkatuan sartzeko prozesuan bitarteko erabilgarria ematea. Hala, onura sozialeko enplegu-aukera bat dago, prestakuntza-prozesua bete ondoren. Hori osatuko da, batetik, lanaldi osoan aldi baterako lan-kontratuaren bitartez eta, bestetik laguntza sozialarekin. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular edo onuradunentzat eta/edo Oarsoaldeako enplegu zerbitzuak eskualdeko gizarte-ongizateko udal-zerbitzuekin batera gizartean nahiz lan-merkatuan sartzeko garatzen dituen tresnetan parte hartzen dutenentzat da.

Partaideentzako jarduera egoki modura kultura- eta natura-ondarea berreskuratzea planteatzen da. Horrez gain, interesgarria da eskualdearen interesa sustatzeko eta bizi diren pertsonen bizi-baldintzak hobetzeko. Hala eta guztiz ere, tokiko erakundeekin alderatu behar da, jarduketa honetan planteatzen diren 3 taldeetatik bakoitzak garatuko duen jarduera zehazteko.

Lan-prozesua hurrengo jarduketa hauen bitartez egituratuko da:

jueves 14 de octubre de 2021



- 1. jarduketa: partaideen aurretiko hautaketa eta berezko hautaketa.
- 2. jarduketa: enplegurako norbera trebatzeko hasierako prestakuntza: prestakuntza Espezialitateen Euskal Katalogoaren barruan FCOO07 espezialitateko prestakuntza-programarekin (enplegurako norbera trebatzeko prestakuntza) bat etorri, ohitura sozial eta pertsonaletan eta lanbidearekin zerikusia duen gizarte-trebakuntzetan edukiak irakatsiko dira 36 orduz.
- 3. jarduketa: lan-jarduerarekin zerikusia duten lanbide-gaitasunetarako berariazko prestakuntza gutxi gorabehera 200 orduz.
- 4. jarduketa: lan-kontratuak: 6 hilabeteko lan-kontratuak lanaldi osoan.
- 5. jarduketa: banako laguntza-neurriak: kontratazio-prozesuan zehar laguntza teknikoa ematen da, lanbide-jardueran aritzeari lotuta, ohitura sozialak eta pertsonalak, gizarte trebeziak eta jarrerak indartu eta hobetzeko. Astean behin egingo da.
- 6. jarduketa: gaitasun sozio-profesionalen banako balantzea laneratze-ibilbide pertsonalizatua zehazteko: kontratazioa amaitzen denean, gaitasunak, interesak eta motibazioak identifikatuko dira, pertsona enpleguaren bilaketa aktiborantz mugiarazteko.

3.3.2.3.3.2. Egikaritzeko egutegia/kronograma hiruhilekoen arabera:

Proiektu honetarako hurrengo egutegi hau planteatzen da:

	2021/03	2021/04	2022/01	2022/02	2022/03	2022/04	2023/01	2022/02
1. jarduketa								
2. jarduketa								
3. jarduketa								
4. jarduketa								
5. jarduketa								
6. jarduketa								

3.3.2.3.3.3. Emaizaren adierazleak:

Proiektu honetarako hurrengo adierazle hauek planteatzen dira:

- Abian jarri behar diren proiektuen kopurua: 3
- Hasten dituzten pertsonen kopurua: 24
- Amaitzen dituzten pertsonen kopurua: 21

3.3.2.3.3.4. Onuradun guztien kopurua eta ezaugarriak:

Guztira 24 pertsonekin lan egitea planteatzen da. Horietatik 3 talde bakoitzeko ofizialak-prestatzaileak izango dira; bien bitartean, 21 pertsona hautatuko dira diru-sarrerak bermatzeko errentaren hartzaileen artetik. Gainera, lehentasuna emango zaie langabezian denbora gehiago daramaten pertsoneri, emakumei eta bazterketa-arriskua duten pertsoneri.

jueves 14 de octubre de 2021



3.3.2.3.3.5. Prestakuntza eta kontratazioaren hilabete guztiak:

Zeharkako hasierako prestakuntzak eta berariazko prestakuntzak 3 hilabete iraungo ditu; bien bitartean, kontratazioa 6 hilabeterako egingo da. Guztira 9 hilabeteko iraupeneko ibilbidea planteatzen da.

3.3.2.3.3.6. Diruz lagundutako kontratua amaitu eta 6 zein 12 hilabetera laneratutako pertsonen kopurua:

Programa hauen bitartez ondorengo laneratze hau planteatzen da:

- Programa amaitzen denetik 6 hilabetera kontratatutako pertsonak: 8
- Programa amaitzen denetik 12 hilabetera kontratatutako pertsonak: 12

3.3.2.3.3.7. Urteko eta guztizko aurrekontua:

Urtero proiektuaren aurrekontua hurrengo modu honetan banatuko litzateke:

	2021	2022	2023
Gauzatutako aurrekontua	0	500.000 €	0

Jarduketa honek gutxi gorabehera honako aurrekontu hau izango luke:

1. JARDUERA: prestakuntza- eta enplegu-proiektuak	DIRULAGUNTZAREN SARRERAK LANERATZEKO POLOAREN HITZARMENA (A)	OARSOALDEAREN GASTUAK (B)	KANPOKO ERAKUNDEEN GASTUAK (C)	Gastuak guztira (B+C)	EMAITZAK A - (B+C)
Kontratazioaren gastuak	335.500 €	335.500 €	0	335.500 €	0
Material didaktikoa, suntsigarria eta banako babes-elementuak	50.000 €	50.000 €	0	50.000 €	0
Alokairuak	30.000 €	30.000 €		30.000 €	
Tutoretzak eta irakaskuntzan arituko ez diren langileak	67.500 €	67.500 €	0	67.500 €	0
Antolaketa eta kudeaketa	17.000 €	17.000 €	0	17.000 €	0
GUZTIRA:	500.000 €	500.000 €	0	500.000 €	0



3.3.2.3.3.8. Erreferentziazko arautegi-esparrua:

Proiektu honek hurrengo erreferentziazko arautegi-esparrua izango luke:

- 2021ean enplegua lortzeko edo mantentzeko zailtasun bereziak izanda, jardunean eta langabezian dauden pertsonak gizarteratu eta lan-merkatuan sartzeko proiektu bereziak garatzeko laguntzen deialdia.
- “2021eko ekitaldirako enplegua sustatzen duten tokiko ekintzetarako laguntzei” buruzko Lanbideren deialdia.
- Lanbideren deialdia, “2021eko ekitaldirako 2014-2020 Gazteen Enpleguari buruzko Programa Operatiboaren esparruan tokiko erakundeek gazteak kontratatzeko laguntzei” buruzkoa.

3.3.2.4. Lanerako prestakuntza-ekintzak:

3.3.2.4.1. Jardueraren deskribapena:

Berpiztu programako LANERATZEKO POLOA proiektuaren barruan planteatutako Enplegu Planean laugarren ildo sartzten da. Helburu du prestakuntza-proiektuak garatzea, eskualdeko langabetuen lanbide-prestakuntza lortzeko. Enplegurako lanbide-prestakuntzak modu erabakigarrian laguntzen du lan-merkatuan sartzten eta pertsonen enplegarritasuna hobetzen.

Nabarmentzekoa da gure eskualdeko langabetu gehienek oso prestakuntza-maila gutxi dutela, eta azkenean eragozpen garrantzitsua dela enplegua bilatzeko prozesuetan dauden pertsonentzat. Horrez gain, lan-merkatuak oso azkar egiten du aurrera, eta pertsonak langabezian denbora luzatzen duen neurrian, zailtasun handiagoak izango ditu enplegua lortzeko.

Horregatik, beharrezkotzat jo dugu zenbait prestakuntza-jarduketekin ildo bat sartzea, batez ere, eskualdeko langabetuentzat. Hala, 1., 2. eta 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriak planteatu ahal izango dira.

Xede horrez, Oarsoaldea Garapen Agentziak laguntzen deialdia ardaztuko luke, eskualdeko prestakuntza-erakundeek prestakuntza-ekintzak egin ditzaten. Modu horretan, erakundeek beren prestakuntza-proiektuak aurkeztuko lituzkete.

Dirulaguntzak norgehiagokaren prozedura erabiliz emango dira, eta egintza bakarrean prestakuntza-ekintzak gauzatzeko aurkeztutako eskaeren multzoa ebatziko da. Aurkeztutako prestakuntza-ekintza bakoitza banaka baloratuko da, eta helburu horrekin ebaluazio-batzorde teknikoa sortuko da.

Eskatzen diren prestakuntza-ekintzak baloratzeko hurrengo irizpide hauek aintzat hartuko dira:

- Zehaztasun eta kalitate metodologikoa
- Eskaeran planteatutako laneratze %
- Planteatutako ibilbideen amaiera %

jueves 14 de octubre de 2021



- Planteatutako prestakuntza-ekintza edo antzekoa irakasten erakundearen esperientzia
- Kalitatearekin konpromisoa
- Euskararekin konpromisoa
- Prestakuntza-erakundeen erantzukizun soziala

Hurrengo prestakuntza ekintza hauek aurkez litezke:

- a) Ziurta daitekeen prestakuntza: Lanbide Prestakuntzen Katalogo Nazionalarekin lotutako ekintzak, profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko; programa daitezke ibilbide osoen arabera, espezialitatearen ordu guztiak betetzen badira, edo prestakuntza-moduluen arabera. Prestakuntzaren 1., 2. edo 3. mailakoa izan daiteke.
- b) Ziurta ezin daitekeen prestakuntza: prestakuntza-espezialitateen katalogotik lortutako gaitasunak egiaztatzeko aukerarik ematen ez duten prestakuntza-ekintzak dira.

Dirulaguntzaren zenbatekoari dagokionez, honako hau aipatu behar da:

- 1.– Prestakuntza-ekintzarako dirulaguntzaren zenbateko guztia prestakuntza-ekintza bakoitzerako dirulaguntzaren zenbatekoa batuta zehaztuko da.
- 2.– Prestakuntza-ekintza bakoitzaren finantzazioa partaide eta prestakuntza-ordu bakoitzeko kostuaren arabera definituko da, *Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren esparruan, 2020-2022 langabetuentzako prestakuntza-eskaintza finantzatzeko dirulaguntzen* deialdian aurrez ikusitako modulu ekonomikoei jarraikiz.

Ekintzak oso-osorik edo zati batean finantzatzeko dira irakatsi beharreko espezialitatearen modulu ekonomiko guztia estali arte falta den zenbateko ekonomikoarekin.

